

Diru-iturriak eta kostuen egitura

Enpresa baten jardueran sartzen eta irtetzen den diruaren kudeaketa on bat egitea ezinbestekoa da, izan ere, horren arabera izango da gure emaitza ekonomikoa.

Funtsean, bi diru-sarrera mota daude. Lehenengo diru-sarrera mota, ordainketa bakarren bidezko sarrerak dira, hots, bezeroak aldi bakarrean egindako ordainketatik eratorzen direnak. Bigarrena, ordainketa errepikarien bidezko sarrerak dira, hau da, zerbitzu edo produktu jakin bat erabiltzeko ala salmenta ondorengo euskarriaren truke bezeroak modu jarraian egiten dituen ordainketatik eratorriak. Gure proiektura aisladatuta, gure diru-sarrerak aipatutako lehenengo motatakoak dira, izan ere, gure bezeroek gure biziketak hartu eta momentuan ordaindu egingo dituztelako. Ordainketa horiek eskudirutan edota ordainketa txartelen bidez egin dezakete.

Gure enpresaren diru sarrera nagusienak hauek dira:

- Zerbitzuen salmenta, hau da, bizikleten alokairuarekin lortutako diru sarrerak.
- Energiaren salmenta, hau da, bizikleten erabilerarekin lortutako energia Iberdrola bezalako elektrizitate enpresei salduko zaie. Ekintza honekin jasotzen ditugun diru sarrerak zuzenean Montes Solidarios elkartera bideratuko ditugu.
- Beste enpresen publizitatea eginez lortutako diru sarrerak. Txirrinduletan gure proiektua babestuko duten enpresen publizitatea ezarriko dugu eta enpresa bakoitzak batz bestea 200 euro ordainduko dizkigu.
- Udaletxeak emango dituen diru-laguntzak.

Diru-sarreak			
Bizikleten alokairua	Bizikleta estandarrak	2 asteetan zehar	244 euro (asteen 120 euro, hau da, 17 euro egunean) x 5 = 1220 euro
		Hilabete osoa (4 aste)	488euro x 5 bizikleta (bost bizikletaz baliatu egiten gara) = 2440 euro
	Txikientzako bizikletak	2 astetan zehar	200 euro (astean 100 euro dira,

			egunean, 14) x 5 bizikleta= 1000 euro
		Hilabete osoa	800 euro x 5 biziketa= 4000 euro
Iberdrolatik jasotako diru-sarrerak		10km-tro egin ondoren jaso ondoren	200 euro.
Udaletxeak emango digun diru-laguntza.			150 euro
Beste enpresetatik, publizitatea egin ondoren jasotakoa.	La Vitoriana, Laku, Sakakortxos taberna, Iris fotokopiagailua, Orbea, Txirinduz, Aupa taberna.	100 euro (emango digute bakoitzak, batz best 200) x 7 taberna edo enpresa= 700 euro	
Emaita			9.710 EURO

Diru-sarrerak dauden moduan, edozein enpresetan bezala, gastuak ere badaude, bi motatakoak izan daitezkeenak:

1. Kostu finkoak, hau da, berdin mantendu egiten direnak ekoizpenaren aldaketen aurrean.
2. Kostu aldakorak, ekoiztutako produktu edo zerbitzuaren kopuruaren arabera aldatzen direnak direnak.

EDONOR(A) proiektuaren kasuan, kostuak finkoak eta aldakorak izango dira.

Alde batetik, kostu finkoak ditugu, hauek ekoizpen mailarekiko independenteak dira, nahiz eta ekoizpena aldatu hauek ez dute aldaketarik sufritzen, eta honako hauek dira:

KOSTU FINKOAK	
Lokala (20 metro karratukoa, General Álava kalean)	230 euro hilabetean
Internetaren tarifa (Vodafonere)	25,61 euro hilabeteko
Segurtasunerako alarma	31 euro hilabetean
Soldatak	Legeak behartu egiten du soldatak finkoak izatera. Hori dela eta, gutako bakoitzak 100 euro irabaziko ditu hasiera batean hilabetean. Hori dela eta 400 euro izango
Bestelako baliabide batzuk gure lokala konpontzeko edo ondo jartzeko (Bonbilak, margoa paretak margotzeko, mahaiak, aulkiak flezoak, datafonia, etb)	1.200 datafonia + 30 bonbilak x 3 euro + 50 euro x 3 bote margo+ 20 euro mahaiak+ 14 euro x 5 aulki = 1530 euro
Emitza	2.216,61 EURO

Beste alde batetik kostu aldakorrak ditugu, hau da, ekoizpen-mailarekiko proportzionalak direnak. Ekoizpena edo demanda aldatu egiten baldin bada, kostu aldakorrak ere.

Kostu aldakorrak	
Elektrizitatea	35,47 euro dira hilabetean 3,47 KW-ko potentzia erabili egiten baldin bada. normalean pisu batean pertsona baka batek hilabetean gastatu egiten duena da. Baina gure kasuan, gutxiago izango litzateke, izan ere, ekainean gauak luzeagoak dira eta argi gehiago dago berandura arte. Bestalde,

	lokala txikia da, beraz, argi askorik ez genuke behar izango.
Bizikletak	<p>Paseorako bizikleta arrunt batek, 200 euro balio ditu Decathloonen, eta txikientzako bat 80. Aipatu genuen moduan, honek, deskontua egingo digu, hori dela eta 180 eta 72 eurotan geratuko zaizkigu. %10a egin ondoren.</p> <p>Beraz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 180 euro x 5 bizikleta = 900 euro - 72 euro x 5 bizikleta = 360 euro
Bizikleten bateria	<p>121 euro balio du bateria batek, gero bizikletari jarri egiteko, baina hau ere erlatiboa da, izan ere, bost bizikleta handieta bost txiki izango ditugulako. Baina ikusten baldin badugu geroz eta gende gehiago animatu egiten dela, honen kantitatea eta kostua handiagotu edo besteetan, txikiagotu egingo da.</p> <p>Beraz.</p> <p>121X10= 1210 euro</p>
Emaiza	2505,47 EURO

Gure erabakia izan da, 2020ko ekainean gure lokala irekitzea eta hilabete batez ikusi egitea zer nolako eragina daukan. Modu honetan murriztu egiten ditugu gure kostuak eta hobetu behar diren gauzen inguruan hausnartu dezakegu. Ekaineko hilabetea erabaki dugu, normalean Gasteizen eguraldi aparta egiten duelako eta modu errazena eta erosoena delako hiritik mugitzeko. Gainera, eguraldi ona alde edukita gendea askoz gehiago irteten da kalera, paseatzera edo igerilekura adibidez. Gainera, udan sartzean gaudenez, turisten berriz izaten hasi egiten gara eta horrek ere gure alde jo dezake

Laburbilduz, honako hauekin izango litrateke gure diru-sarrerak eta kostuak:

Kostuak			Diru-sarrerak
	Finkoak	2.216,61 EURO	9.560 EURO (baina kantitate honi 200 euro kendu eginn behar zaizkio. Izan ere lbedrolak ematen digun dirua da, baina guk diru hori ez dugu guretzat inbertituko, baizik eta Montes Solidariosi emateko)
	Aldakorrak	2.505,47 EURO	
Kostu totalak		4.722,08 EURO	9.560-200= 9.510 EURO

Bazkideeen finantzazioa

Finantziazioari dagokionez, ez dizkiogu diru-laguntzak bankuari eskatuko. Izan ere, ekainean bakarrik gure enpresa irekitzeko asmoa dugulako eta ez du merezi hilabete bakarretako mailegu bat eskatzea. Hilabete horretan, dena martxan jarri egiteko lau kideok guk, gure poltsikotik inbertituko dugu gure proiektuan. Bakoitzak, 1.200 euro jarriko ditugu; beraz, guztira, 4.800 euro izango dira genituzke.

Diru-sarrerak eta kostuak jakinda, ezinbestekoa da jakitea zeintzuk izan diren hilabete honetan gure enpresaren irabaziaz.

Mozkinak= diru-sarrerak-kostuak; beraz, 9510 euro (ds)- 4722,08= 4787,92 euro. Hau da, irabaziaz ditugu, diru sarrerak, kostuak baino gehiago direlako.